

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak elikagai ekologikoak baloratzen dituzten pertsonak eta bertako produktuak kontsumitzen dutenak izango dira. Edozein adin-tartekoak izan daitezke.

Lehenengo, bertako lokaletako saltzaileak izango dira gure bezeroak eta haiei salduko dizkiegu gure produktuak.

Behin merkatuan segmentatu garela, bigarren urrats batean, erosle-kooperatibekin harremanetan jarriko gara eta haiek dituzten bezeroak erakarriko ditugu gure enpresako produktuak kontsumitzera. Horrez gain, hemengo supermerkatu eta merkatuekin (Eroski, BM...) akordioetara iritsiko gara eta haiek salduko dituzte gure produktuak, jada baitituzte km0-ko barazki eta fruten sekzioak.

Gure merkatu-segmentazioari dagokionez, gure merkatua da nitxo osatutako merkatua; izan ere, nahiz eta talde zabala izan, behar bereziak dituzten pertsonak dira bezero potentzialak, hau da, bertako produktuak kontsumitzeko beharra dutenak. Nitxo osatutako merkatua izanda, bezeroek saltzailearekiko duten leialtasuna da ezaugarri garrantzitsuena. Gero eta ospetsuagoa bihurtu da km0-ko produktuak kontsumitzea eta handitzen dagoen merkatua da hau.